

Ezkio-Itsaso Sagardo Astea

Duela bostehun urte sagardoa egiteko zein teknika erabiltzen ote zen? Jakin-min hori ase nahi duenak, azaroaren 3a bitartean Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserria hurbiltzea baino ez du. Duela hiru urtatik Sagardo Astea ospatzen da garai honetan XVI. mendeko baserri-museo horretan. Dolarea martxan jarri eta sagardoa egiteko orain bost mende erabiltzen zuten teknika baliatzen dute. Sagarrak prentsatzeko erakustaldiak egunero egingo dira, goizeko 11:30ean eta arratsaldeko 17:00etan. Igartubeiti baserria XVI. mendean sortu eta XVII. ean handitu zuten. Baserriaren urrezko aroko zurrezko arkitektura tradizionalaren adibiderik onenetakoa da, beraz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak dolare-baserria zaharberritu eta museo bizi izateko birmoldatu zuen. XVI. mendeko baserriaren ohiko prozedura jarraituz, dolareko lana berreskuratu eta jendeari jarduera haren berri zuzenean eta zehatz-mehatz eskaintzea du xede, hain zuzen ere, Sagardo Asteak. Segurtasun arrazoiak direla-eta, prentsaldia egiten den gunean, lehen solairuan, sarrera murriztua izango da eta ez da erreserbank onartuko. Dena den, baserriko behe solairuan kokatuko den proiektzioaren bitartez, publikoak prozesua ikusi ahal izango du, denbora errealean, baita bertatik muztioa dastatu ere.



Iazko Sagardo Astean, Igartubeiti baserrian sagardoa egiten. gari garatzea / arratsaldeko prentsa